

Udaletxearen 300. urteurrena ospatzeko ekitaldiak egingo dira azaroaren amaieran

Udaletxearen eraikinak 300 urte bete ditu aurten. 1711. urtean bukatu zuten bost urte lehenago hasitako eraikina. Hiru mende hauetan zehar, ostatua, kartzela, denda, udaletxea eta beste hainbat gauza ere izan den herriko eraikin garrantzitsu honen urteurrena ospatzeko hainbat ekintza antolatu ditu Udalak.

Azaroaren 22tik 25era hiru hitzaldi izango dira iluntzeko 7etan kultur etxean. Azaroaren 22an, asteartea, Jakoba Errekondok *Zerain Proiektua* izeneko hitzaldia emango du. Hurrengo egunean, asteazkenean, Antxon Lafontek *Landaguneko kultura eta kaleko kultura* izeneko hitzaldia



emango du (gaztelaniaz izango da). Eta ostegunean, Elixabete Garmendiak *Zerain (1975-2011), herri baten berpiztea* hitzaldia emango du.

Azaroaren 27an, igandean, 300. urteurrenaren oroimen ekitaldia egingo da eguerdiko 12etan udaletxe ondoan. Udaletik pasatako zinegotzi eta alkate guztiak, nahiz gainontzeko herritar guztiak gonbidatu nahi ditu Udalak oroimen festa horretan parte hartzera. Aurkezpen-hitzaldiaren ondoren, agurra dantzatuko da. Segidan Iñaki Murua eta Mikel Mendizabal bertsolariak arituko dira, eta ekitalditxoaren azken partean, Uharka abesbatzak *Agur Jaunak* kantatuko du. Azkenik, hamaiketako batekin sabela goxatuz eta elkartutako argazkia aterata, bukatuko da oroimen ekitaldia.

“Begira nago begira” izan da Errementariko proiektu garailea

Azaroaren 2an egin zen Errementariko proiektuaren ideia-lehiaketako proiektu irabazlea aukeratzeko notario aurreko boto-kontaketa eta gutunazalen irekiera. Eguerdiko 12etan herritarrek bost proiektu finalisten artean emandako puntuazioen kontaketa egin zen. Hauek izan ziren lehenengo hirurak: “Begira nago begira” 346 puntu; “Lurra ZRN” 283 puntu; “Zerainduz Zerain” 253 puntu. Epaimahai teknikoaren balorazioak gehituta, herritarrek erabakitako hiru proiektu horiek eta hurrenkera horretan izan dira lehenengo hirurak. Ondorioz, Maier Velez eta David Serranoren “Begira nago begira”



proiektuak irabazi du ideia lehiaketa. Hori izango da abiapuntua etorkizuneko Errementari lantzen joateko.

Kultur aste oparoa ederki joan da

Urriaren 22tik 29ra bitartean kultur aste oparoa eta jendetsua ospatu zen, Oa kultur elkarteak antolatuta. Hilaren 22an, umeen marrazki-saioa, kantubazkaria eta patata-tortila lehiaketa egin ziren. Sekulako giroan joan ziren hiru ekintzak. Hurrengo egunean jubilatuen eguna izan zen, eta urte askotan etorri diren Joxe Agirre eta Patxi Etxeberria bertsolariak omendu zituzten. Asteazkenean zehar gai askotariko hitzaldiek jende asko elkartu zuten iluntzetan. Larunbatean, urriaren 29an, Barbari aldean egindako mendi ibilaldiarekin eta Mixel Etxekopar musikariaren emanaldiarekin amaitu zen aurtenko kultur astea.

Kultur astea iruditan



Marrazki, talo, gaztina eta txotxongiloak



Azken hilabete honetan, kultur astearen barruan, urriaren 22an, haur eta gaztetxoek marrazki dotoreak egin zituzten herriko plazan, ondoren marrazkiak ikusgai izan genituen frontoiko sarreran. Eguraldi politik lagunduta gustora aritu ziren lanean eta lanaren ondoren ordaina izan zuten; bakoitzak oparitxo bana jaso zuten.

Azaroaren 5ean berriz, gaztina eta



talo jana izan genuen frontoian. Eguraldi kaxkarraren ondorioz, gaztina biltzera joateko aukerarik ez zen izan eta haurrak jolasak egin zituzten. Ondoren talo eta gaztinak jan genituen bertaratutako herritarrok.

Bukatzeko, aipa dezagun, abenduaren 2an, Txotxongiloak ikustera joango garela Tolosara.

Basarte Guraso Elkarte

Santa Zezilia azaroaren 25ean ospatuko da

Uharka abesbatzak Santa Zezilia eguna, musikariaren eguna, azaroaren 25ean ospatuko du. Iluntzean tabernetan abestu ondoren, denak elkarrekin afaltzera joango dira. Ondoren ere ez da kantarik faltako. Bestalde, Tobera musika eskolaren ospakizuna Seguran izango da azaroaren 21ean, iluntzeko 6:30etan.

Herriko gaztetxoak sahararrei lagunduz

Herriko gaztetxoek festetan antolatzan duten "Tiro lata" jolasarekin bildutako diruaren zati bat Saharako herriari laguntzeko bideratu dute, Gipuzkoako Sahararen laguntzarako elkartearen bitartez. Elkarteko ardura-dunek esker gutuna bidali diete eta horrela jarrai dezaten animatu dituzte.



Hegoakatzza

Ehiztari-herria da Zerain, inon halakorik bada. Ez da giro izaten Pilarikatik aurrera. Lehenago ere hasten dira herritar batzuk; orain da ordea, benetan, Zeraingo ehiza-garai nagusia. Ehiza-garaia eta ehiza-festa. Festatzat har-tzen baita, hemen eta inguruotan, ehiza kontu hau. Ohitura handia izan dute zeraindarrek ehizera-ko, aspaldi samarretik. Zenbat etxe ote dira herrian, azken bi belaunaldietan ehiztari bakarrik gabeak? Erdira iristen ote dira halakoak?

Ehizera joan aurretik, jakina, uso-pestoak hartu, antolatu eta prestatu behar izaten dira. Berariazko lana eta buruhastea izaten du eginbehar horrek. Eta gero, ehizerako garaia etorri eta uso-usainik txikiena sentitzen denean, hor doaz gehienak nor bere puestoetara. Gu ere izanak gara, aurreko batean, Apotako hegalean. Eskupetarik ez genuen gurekin, hankak luzatuz ibiltzera joanak baikinena. Ehiza-festaren erdi-erdian suertatu ginen ordea. Bazen inguruan tiro-hotsik ugari. Birigarroa ugari samar sartu zen. Pieza-mordoxka ederrik ikusi genuen, ehiztarien alborro eta motxila-pardeletan. Lainoa sartua zuen goiz-goizetik, eta ikusmira handirik ez zuen inork: ez ehiztariak eta ez haien ihesi zebiltzan txoriek. Bat-bateko norgehiagokan zebiltzan biak, laino artean: batzuek danbateko biziz, besteak izkintxo egin behar larrian. Oreka handirik gabeko norgehiagoka dugu ehiza, jakina. Zoriaren mendeko jokae- ra da halere, hainbatean.

Zori kontu horrek erakartzen du, seguruenik, hainbat zeraindar eta hainbat goierritar. Zori horrek eramaten ditu amets egitera: gaur ez, baina ea bihar! Zeresan handia du zoriak. Ehiztarien artean badira noski aldeak, beste edozein esparrutan bezala. Ehiztari ona izatea ez da ordea aski. Puesto ona izatea ere ez. Suertea ere behar da parean: zori ona. Suertea edo zoria da, askotan, uso-bandadak zure puestora edo aldamenekora bideratzen dituen. Ezer gutxi dezakezu halakoan: enbidia punttua sentituko duzu, agian, zurera "behar zuten" birigarroak aldamenera sartu direlako.

Bada bestelako zori-konturik tartean: eguraldia. Segun zer eguraldi ateratzen duen, badakite ehiztariak egun horretan zer espero izan litekeen. Zenbait eguraldik itxi egiten du txorien pasabidea. Orduak eta orduak eman litezke puesto gainean, hotza astindu ezinik, baina alferrik: uso-bandadarik pasatzen ez. Beste zenbaitetan, aldiz, erraz eta ugari sartzen dira: orduan aprobeixatu behar. Haize-klaseak erabakitzen du, askotan, ehizera-ko egun ona edo txarra den. Haizea halako edo holako denean, esate baterako, oso goitik pasatzen dira usoak. Orduan ere alferrik da. Ikusi bai, ikusiko dituzu sekulako bandadak, baina alferrik da haiei tiro egitea: urrutiegi doaz.

Bada, azkenik, ehizera-ko oso traketza den beste eguraldi mota: *hegoakatzza*. Aurten ikasi dugu hitz hori, ehiztarien ahotik. Horra nolatsu: "zer moduz gaur, Txomin, zuen puestoalde horretan?" Erantzuna, etsia: "gaurkoan *hegoakatzza* sartu dik, eta galdutako eguna izan diagu". Ehiztari askotxorekin hitz egin dugu herrian, bai Elenak eta bai nik, *hegoakatzaren* gainean. Bat datoz guztiak: haize hori sartzen duenean ez da usorik pasatzen, inondik inora. Zer haize mota da hori? Bati baino gehiagori galdetu diogu, herriko Mandion eta Ostatun. Gehienek antzeko erantzuna eman digute: Araba aldetik jotzen duen hego-haize nabarmena da *hegoakatzza*. Zerainen bertan baino gehiago goiko mendietan, Aizkorri aldeko partzuergoan eta bere jirabueltan, nabarmen-tzen omen da. Araba aldetik hego-haizeak jotzen duenean, eta Gipuzkoatik iparrak, orduan sortzen omen da barrera modukoa. *Arabakatzza* ere esaten diote, horregatik-edo, ehiztari batzuek. Espelikazio landuagoa eman digu zenbaitetik: Espainiako erdialdean sortzen den boraskaren gaineratik datorren hego-haizea omen da *hegoakatzza*. Hegoaldetik, Arabatik edo Barranka aldetik, hego-haizeak jotzen duenean sortzen den laino-barrera omen da. Hala esan digu Josemari Etxaluzek, eta gauza bera dio funtsean Orotariko Euskal Hiztegiak: "*Egoakatzza*, la niebla que entra por la parte de Alsasia y se

detiene por Otzaurte".

Bizirik dago hitza Zerainen. Ez ordea zeraindar guztien ahoan, batzuen artean baizik. Kasu honetan, muga nagusia ez du adinak ezartzen, jarduerak baizik. Ehiztari izan ala ez, hori da kontua. Zer pentsatua eman digu horrek. Teknolekto modukoren bat ote dute Goierriko ehiztariak beren artean jarduteko, eta haien artean zabal dabilen zenbait hitz edo esamolde galdurik edo galtzeko bidean ote dago gainerakoan?. Ezinezko gauza ez da hori, aski teknolekto mugatuaz ari izan baikaitezke ere. Ondorio teoriko argia du horrek, nolana ere. Hitzuntalde baten jardunak, bere aktibitateak, eusten dio hitzari bizirik. Hitzuntalde horrek bere jardunerako garrantzitsua den gertakari bat (kasu honetan eguraldi mota bat) adierazi beharra sentitzen duen artean, eta hori adierazteko erdal hitzik ez dagoenean edo ezaguna ez duenean, bizirik iraun dezake hitzak, belaunez belaun, nahiz eta hitzunt horiek bizi diren herrian bertan hitza, gainerako hitzunen artean, galduz joan edo galdurik egon. Horrelako zerbait gertatzen da, antza, *hegoakatzaren*kin. Ehizean inoiz ibili gabekoek, nahiz eta adinean aurrera joan, ez dute erabiltzen; zenbaitetik jakin ere ez daki, justu-justu, *hegoakatzza* zer den. Otzaurtetik gora usotara joaten direnak ordea, nahiz eta ondotoz gazteago izan, hitzaren jabe dira. Jabe dira eta hartaz baliatzen zaizkigu, lasai asko, hala dagokionean.

Kontestuak, beharrak eta jardunak erabakitzen du hitza nork jakin eta nork ez. Horrek erabakitzen du nork-noiz-non-norekin erabili eta nork-noiz-non-norekin ez. Jardunari bere hartan eusten zaion artean, hitza ere bizirik mantenduko da hainbatean. Zeraingo ehiztariak goizean goiz jaiki eta Aldaolara edo Beundera, Apotara edo beste mendi-hegalen batera joaten diren artean gutxi fio: punteria onaz hitz egingo dute usoa sartzen denean, eta *hegoaka-tzaz* izango dute mintzoa, behin baino gehiagotan, alborroa hutsik dutela bueltatzen direnean.

Mikel Zalvide eta Elena Mendizabal



Xagu-txoko



Babesetik

URRIA	al	ar	az	og	or	lr	ig
						1	2
Euria (l/m)	GUZTIRA: 50,75l.					0	0
C° altuena	ALTUENA: 28°					26	28
C° baxuena	BAXUENA: 4°					18	17
	3	4	5	6	7	8	9
Euria (l/m)	0	0	0	0	7	15	1
C° altuena	26	24	23	22	17	14	17
C° baxuena	13	12	16	14	14	12	12
	10	11	12	13	14	15	16
Euria (l/m)	0	0	0	0	0	0	0
C° altuena	22	23	19	19	20	22	22
C° baxuena	9	13	15	15		12	10
	17	18	19	20	21	22	23
Euria (l/m)	0	0	9	2	0	0	0
C° altuena	22	21	17	15	15	20	21
C° baxuena	11	9	8	9	4	10	15
	24	25	26	27	28	29	30
Euria (l/m)	0,25	0	0	10	6,5	0	0
C° altuena	23	20	18	16	15	17	15
C° baxuena	17	17	9	15	11	8	9
	31						
Euria (l/m)	0						
C° altuena	21						
C° baxuena	7						

Urria lehor eta bero

Azken 10 urtetako urririk lehorrena egin du aurten, duela 12 urtekoa izan zen lehorragoa guk jasota ditugun datuen arabera: 39 litro egin zituen urte hartan. Temperaturei dagokionez, ez dugu uste hain berorik aspaldi egingo zuenik, hilabete osorik ez behintzat. Indoabak eta bestelako uzta biltzeko giro bikainak. Tomateak jateko aukera ere luzatu da bero horrek lagunduta, ikusi bestela Joxe Mari eta Maiterenen tomate-puskak (1,700 eta 1,200 kg) argazkian. Perretxikoak eta onddoak irtetzeko, aldiz, ez da hain ona izan, eta usoak pasatzeko hilabete bukaerara itxaron behar izan bada ere ehiztariak gustura ibili dira.



Kanadako arkeologo bat Aizpeara iritsi da Labordern pieza baten aztarnaren atzetik



Kanadako arkeologo bat eta haren ikerketari buruz dokumentala egiten ari den taldea Zeraingo burdinaren mendian izan berri ditugu. Kanadan aurkitutako burdin-pusketa baten aztarnari jarraituz, garai batean balea-arrantzaleek hara eramandako piezaren baten zatia izan zitekeela pentsatuta, Aizpeako meategietarai-

no iritsi da arkeologo hau. Burdin pusketa hartan aurkitutako irudi batek Aizpittan dagoen Laborderen bildumako pieza batekin bat egiten zuela eta etorri da Kanadatik gure artera arkeologoa eta bere taldea. Istorio bitxi bezain polita, Zeraingo gure burdina urrutira iritsi zitekeela adierazten duena.

Herri-bilera abenduaren 18an eguerdiko 12etan

Udalak bultzatuta herrian sortu diren lan-talde eta komisioen herri-bilera egingo da abenduaren 18an, igandea, eguerdiko 12etan. Lan-talde horietan izena emandakoei nahiz beste herri-tarrei dei egiten zaie bilera honetan parte hartzera.

Sagardo-barrikoteak

Urteroko moduan aurten ere barrikoteak antolatu dira. Helduena abenduaren 16an egingo da. Izena emateko soziedadean dago aukera. Gazteena berriz abenduaren 9an egingo da. Izena emateko Xabiri deitu.

Mendiaz emanaldia

Felipe Uriarte mendizaleak *Koskulok* (7028 m) emanaldia eskainiko du kultur etxean iluntzeko 7etan. Kultur Elkarteak antolatuta eta Kutxak lagunduta izango da bideo-emanaldia.